

2005eko Algorta, Portu Zaharra eta Itzubaltzeta / Erromoko jaien aurrean

Uztaila hasieran gaude eta aurreko urteotan bezala Getxoko Udalak udalerriko hiru jai handienetarako arautegia ateratzeko azken unera arte itxaron du, eta berdin jokatu du jai hauetan jartzen diren txosnetarako arautegiarekin.

Hiru jai hauetan, udalerriko besteetan bezalaxe, lan handia egiten da jaiak ahalik eta hoberen prestatzeko eta emaitza adin guztientzako auzokideentzat gozagarria izan dadin. Horretarako, gainera, ahalegin bereziak egiten ari dira jaiak herrikoiak, parte-hartzaileak, euskaldunak eta parekideak izan daitezen.

Jai batzordeetan auzokide guztiek badauzkate ateak irekita, baina bertoko kuadrila, konpartsa, kolektibo eta elkarteen ekarpenik gabe ezin izango lukete egin gaur egun aurrera eramaten dituzten lan guztiak. Era berean, Algortako Jai Batzordean, Portu Zaharreko Jai Batzordean, Erromo eta Pinuetako Jai Batzordean edo Itzubaltzetako Txosna Batzordean festak prestatzen diharduten kolektibo askok ere urtean zehar beren egitarauak burutzeko aukera daukate diru iturri garrantzitsu bat izateko.

Zoritzarrez, hainbatetan jai edo txosna batzordeetan urte osoan zehar egindako lanak ez dauka saririk, Getxoko Udalak hartutako erabakiak direla medio. Hain zuzen ere, Udalak festak antolatzea ez duelako kontuan hartzen txosnak ematerako orduan eta, bestalde, talde guztiontzako baimenik ez duelako ematen. Horrelako arazoak “konpontzeko” azken unean elkarteren bati ez dagokion tokian txosna ematea ez da ohitura ona.

Aurten, Lehenik eta behin, txosna eskaera egiteko informazioa ez zaie elkarte guztiei helarazi, ezta Udalaren eskuetan dauden baliabideetan erakutsi (Udal webgunea edo “Getxoberri”, adibidez). Bestalde, ez dagokion eta lan egin ez duen lekuan txosna jartzea eskatu zaio talde bati eta, hori gutxi balitz, beste batzuk txosna barik geldituko dira (nahiz eta festak prestatzen jardun), konponbiderik jarri ezean.

Horren aurrean, sinatzen dugun taldeok honako hau eskatzen dugu:

- Elkarteen leku aldatzerik ez egotea txosnak banatzerako unean.
- Txosnak banatzean jaien prestakuntzan jardutearena premiazko irizpidea izatea.
- Datorren urtean hasita, hiru jai handienei buruzko dekretuak ekaina baino lehen kaleratzea, jai batzordeei zein aurreko hiru urtetan txosna eskatu duten taldeei helaraztea, eta, gutxienez, udal webgunean eta “Getxoberri”n horiei buruz informatzea, jai batzordeen eta txosna batzordeen lana errazteko.
- Algortako San Inazioetan parkingean elkarteen laugarren txosna bat jartzen uztea, bertako talde guztiak lekua izateko eta kontuan hartuta bere garaian bost txosna egon zirela bertan.

- Portu Zaharrean elkarteen laugarren txosna bat kokatzen ahalbidetzea, bertako elkarteek aspaldi aldarrikatu bezala, kontuan hartuta dauden beharrak eta leku arazorik ez dagoela.
- Itzubaltzeta / Erromon bosgarren txosna muntatzen uztea, bertako taldeek ere baldintza duinak izan ditzaten.

Sinatuta:

**UKBERRI URIBE KOSTAKO KOMUNIK. EUSKALDUNAK ELKARTEA
AIXERROTA ALGORTAKO IÑAKI DEUNAREN JAI BATZORDEA
PORTU ZAHARREKO JAI BATZORDEA
ERROMO ETA PINUETAKO JAI BATZORDEA
ITZUBALTZETAKO TXOSNA BATZORDEA
ITURGITXI FUTBOL TALDEA
GETXOKO EUSKAL PILOTA TALDEA
KARRIKA GAZTE KONPARTSA
GORRONDATXE KULTUR ELKARTEA
ALGORTA ARRAUN TALDEA
GETXO HOCKEY TALDEA
GETXO SOKATIRA TALDEA
ALGORTAKO BILGUNE FEMINISTA
BARRUTIK ELKARTEA
KOSKA KULTUR ELKARTEA
MUXIKE TOPAGUNEA
BETI KALEAN ELKARTEA
GU GEU GAZTEAK ELKARTEA
ZASI ESKOLA DANTZA TALDEA
BERETERRETX EUSKAL KULTUR ELKARTEA
EUSKALKIZ EUSKALKI EUSKARA TALDEA
BRANKA KULTUR ELKARTEA
GAZTE ENBATA AISIALDI ELKARTEA
ERROMOKO HERRI NORTE TALDEA
ITZUBALTZETAKO GAZTE MUGIMENDUA**